araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak prestakuntza-programa bat antolatu du kontzejuen eguneroko kudeaketa errazteko

Azaroan eta abenduan egingo diren saioetan, administrazio-batzarretako bileren antolaketa, herritarren parte-hartzea eta tresna digitalen erabilera landuko dira

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 2a. Arabako Foru Aldundiak, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren bidez, prestakuntza-programa bat antolatu du Arabako kontzejuetako administrazio-batzarretako kideentzat eta, oro har, kontzejuetako herritarrentzat. Saioak azaroan eta abenduan egingo dira, eta bi arlo nagusi izango dituzte: bileren eta batzarren dinamizazioa eta denboraren kudeaketa, batetik, eta gaitasun digitalak, bestetik.

Programak hamabi saio presentzial izango ditu, lurraldeko sei eremutan banatuta, kontzejuen kudeaketan parte hartzen duten pertsonen bertaratzea errazteko eta eguneroko jardunean erabil ditzaketen tresna praktikoak eskaintzeko.

Administrazio-batzarrek hainbat eginkizun betetzen dituzte beren herrietako gaien kudeaketarekin eta kontzejuetako bizitzaren antolaketarekin lotuta. Lan horien artean daude batzarrak eta bestelako bilerak prestatzea eta egitea, erabakiak hartzea, administrazio-izapideak egitea eta beste erakunde batzuekin harremanetan egotea. Eginkizun horiek betetzeko, zenbait ezagutza eta tresna behar dira, eta horiek ez dira beti ezagunak ardura horiek beren gain hartzen dituzten pertsonentzat.

Testuinguru horretan, prestakuntza-saioak kontzejuen ohiko funtzionamenduan gertatzen diren egoeretatik abiatuta diseinatu dira, haien beharretara egokitutako edukiekin eta azalpen errazak, ariketa praktikoak eta zalantzak argitzeko tarteak uztartzen dituen metodologia batekin.

Bileren antolaketa eta herritarren parte-hartzea

Programaren lehen zatia bileren dinamizazioari eta denboraren kudeaketari eskainiko zaio, arreta berezia jarriz administrazio-batzarretako bileren eta herritarren batzarren prestaketan, garapenean eta jarraipenean.

Landuko diren edukien artean daude deialdiak eta gai-zerrendak prestatzea, eginkizunak banatzea, hitz egiteko txandak antolatzea eta bertaratutako pertsonen parte-hartzea errazteko teknikak.

Era berean, bileretan sor daitezkeen egoerak landuko dira, hala nola iritzi desberdinak agertzea, akordioak lortzeko zailtasunak izatea edo eztabaidak antolatu behar izatea aurreikusitako gai guztiak jorratu ahal izateko.

Prestakuntzak kontzejuen jarduerarekin lotutako simulazio-ariketak eta kasu praktikoak izango ditu, baita hartutako erabakiak jasotzeko, ardurak zehazteko eta horien jarraipena errazteko tresnak ere.

Iosu Muro Visa – imuro@araba.eus - 945 18 17 46 – prentsa.araba.eus

Administrazio-kudeaketarako tresna digitalak

Bigarren multzoa administrazio-batzarretako kideen eta, oro har, kontzejuetako herritarren gaitasun digitalak lantzera bideratuko da, izapideak egitea eta administrazio publikoekin harreman elektronikoak izatea errazteko.

Saioetan ziurtagiri elektronikoaren eta sinadura elektronikoaren erabilera, egoitza elektronikoetarako sarbidea, eskaeren eta dokumentazioaren aurkezpena, jakinarazpenen kontsulta eta artxibo digitalen antolaketa landuko dira.

Era berean, segurtasun digitalaren, datuen babesaren eta komunikazio-tresnen erabileraren oinarrizko alderdiak jorratuko dira, hala nola posta elektronikoa eta kontzejuen kudeaketan ohikoak diren beste kanal batzuk.

Prestakuntzaren zati horrek belaunaldien arteko ikuspegia ere izango du, haurrek eta nerabeek ezagutza digitalak trukatzeko jarduera praktikoetan parte hartuko baitute.

Saioak Arabako hainbat lekutan

Prestakuntza-saioak Ribabellosan, Vitoria-Gasteizen, Elorriagako Batzar Etxean, Agurainen eta Ozaetan, Murgian, Errespalditzan eta Santikurutze Kanpezun egingo dira. Saioetan bileren dinamizazioa eta gaitasun digitalak landuko dira.

Lehen saioa datorren azaroaren 9an, astelehena, 18:00etan, izango da, Ribabellosan, Añanako Kuadrillaren egoitzan, eta bileren dinamizazioari eta denboraren kudeaketari buruzkoa izango da.

Jarduerek izaera parte-hartzailea izango dute, eta bertaratutako pertsonek planteatutako egoerak aztertzeko aukera emango dute. Halaber, kontsultarako materialak emango dira, ondoren kontzejuen kudeaketan erabili ahal izateko.

Prestakuntza-saio hauek antolatzeko, Arabako kontzejuak biziberritzeko planak egiteko prozesuetan eta parte-hartze prozesuetan identifikatutako zenbait behar hartu dira kontuan, bereziki komunitatearen antolaketarekin, herritarren parte-hartzearekin eta administrazio-kudeaketako zailtasunekin lotutakoak.

Iosu Muro Visa – imuro@araba.eus - 945 18 17 46 – prentsa.araba.eus